

Ikuskaritza-praktika berritzaileak

**SICIk 2019an egindako
hausnarketen
ondorioak**

Chantal Manes-Bonnisseau
SICIkoko lehendakaria, 2019ko azaroa

Ikuskaritza-praktika berritzaileak: SICIk 2019an egindako hausnarketan ondorioak

Sarrera

2018an Hezkuntza Ikuskariren Nazioarteko Elkarteko kideek ikuskaritzaren eragina izan zuten beren mintegietan hausnartzeko gai nagusia. Gai nahiko erraza dela ematen du, haien identitate profesionalaren ardatzean kokatzen baita, hots, hezkuntza-sistemen kanpo ebaluazioa nazio eta nazioarte mailako eragile askok garatu eta aurrera eramaten duten testuinguru batean. Horregatik, ikuskariak beren funtzioa birplanteatzen eta birdefinitzen ari dira azkar aldatzen ari den mundu batean, mundu horretan alde interesatuen autonomiaren eta arduraren artean egon beharreko oreka dinamikoa baita eta etengabe auzitan jartzen baita. Hausnarketa horien ondorioak agiri batean laburbildu ziren, SICIren webgunetik deskarga daitekeena.

[Ikuskaritzaren eragina](#)

Ikuskaritzaren praktika berritzaileen gaia foku nagusia izan zen 2019. urtean: lehen begirada batean, gai horren aukeraketa harrigarria gerta daiteke, haren funtzio historikoa, berrikuntza sustatzea baino gehiago, metodoak edo eskola-praktikak kontrolatu eta ebaluatzea izan den lanbide batean. Baina, horretan pentsatzen jarrita, honakoa argi geratzen da: gaurko hezkuntza-sistemetan ikuskaritzaren eta ikuskariren funtzioak izan duen bilakaeraren gaiari aurre egiteko era bat besterik ez da ikuskaritzaren praktikan izandako berrikuntzez hausnarketa egitea. Sakonean, 2018an ikuskaritzaren eraginari buruz formulatu zen galderak berbera izaten jarraitzen du: nola bermatuko dugu funtzio eraginkor bat betetzen dugula gazteek jasotzen duten hezkuntzaren hobekuntzan? Funtsezko galdera horrek beste galdera batzuk planteatzera garamatza: Zein aldaketa sartu behar ditugu geure ikuspegiari, beste alde interesatu batzuei hobetzen laguntzeko? Berrikuntzak onenak direla nola erabakitzen dugu? Nola jartzen ditugu praktikan? Berrikuntzak nola eramaten gaitu aldaketara? Eskoletan praktika onak identifikatu eta sustatzeko, zein metodo berritzaile erabiltzen dituzte ikuskariek?

Janet Looney-ek esaten duenez, "hezkuntzaren sektorean denbora luzez interes nabarmena sortu duen gaia izan da berrikuntza. Izan ere, berrikuntza arrakastatsua hezkuntzaren bidez, neurri handi batean, elikatu eta garatzen diren giza sormenaren,

ezagutzaren, trebetasunen eta talentuen menpe dago. Zer egin dezakete eskolek eta irakasleek gaitasun horiek hobeto lantzeko? Eta, inportanteagoa dena, nola izan dezakete hezkuntza-sistemek berrikuntzaren bidez beren gaitasunak garatzeko aukera?”¹

Horren guztiaren arabera, ikuskaritza-praktika berritzaileei buruzko hausnarketa egitea premia eta erronka dela dirudi.

Ikuskariak honako beharrak dituzte:

- Kalitatea kontrolatzeko mekanismoak aldatzen ari den eskola-testuinguru batera egokitzea; izan ere, eskola-testuinguru berri horretan gero eta autonomoagoak diren eskolek eman behar diete ikasle bakoitzaren premiei arreta, eta emaitzak ebidentzia oinarri izango duen ikuspegi baten bidez neurtuko dira.
- Behar den oreka aurkitzea eskola eta irakasleak kontrolatu eta haiei laguntza ematearen artean, baita politika publikoen ebaluazioaren eta arduradun politikoei eman beharreko aholkularitzaren artean ere.
- Eskolak, irakasleak edo gelaren behaketa oinarri duten irakaskuntza-praktikak ebaluatzeko ikuspegi zuzena definitzea.
- Kanpo ebaluatzaile gisako gure lanaren eragina handitzea.

Halaber, eta zalantzarik gabe, erronka bat da, konpontzen dituenak baino galdera gehiago planteatzen dituela baitirudi:

- Esperimentazioarekin edo aldaketarekin konparatuta, nola definituko dugu berrikuntza?
- Zeintzuk dira berrikuntza sustatzeko era eraginkorrenak? Eskoletan? Ebaluatzeko metodoetan? Lan-taldean aritzeak alde interesatu guztien parte-hartzeak dakarren esperimentazioa edo lidergo partekatua dakartza?
- Nola ebaluatu praktika berritzaileen eragina? Berrikuntzaren “adierazle” bat eraikitzerik ba al dago?
- Zeintzuk dira parteka genitzakeen esperimenduak eta dauden ezagutzak? (2020 Working Group ETren txostena, escuelas).
- Nola erabil dezakegu ondo eskoletako berrikuntzari buruzko ikerketa? (Looney, 2009: Assessment and innovation; Hopkins: Networks of innovation; Hargreaves, 2003).

¹ Looney, J. (2009), "Assessment and innovation in Education", OECD Education Working Papers, nº 24, OCDE Publishing, París, <https://doi.org/10.1787/222814543073>.

Erronkari aurre egiteko, urtean zehar tailerren ardatzak izan ziren hiru galderaren inguruan egituratu zuen SICIk bere hausnarketa:

- Zeintzuk dira ikuskaritza-praktika berritzaileen indar bultzatzaileak eta helburuak? Bulgaria, 2019ko martxoaren 28a eta 29a.
- Zeintzuk dira diseinatu beharreko estrategiak eta gainditu beharreko oztopoak? Madeira, 2019ko maiatzaren 30a eta 31
- Nola bihurtu aldaketa sistemiko praktika berritzaileak? Irlanda, 2019ko irailaren 23a eta 24a.
- Kide guztiek aurkeztu eta eztabaidatutako azken agiria. Londreseko Batzar Nagusia, 2019ko azaroaren 14a eta 15a.

I. Ikuskaritza-praktika berritzaileak: indar bultzatzaileak eta helburuak.²

I.1 Nola definitzen dugu berrikuntza?

Terminoaren argi izatea eta denen artean ulertzera iristea izan zen Bulgariak antolatutako lehen tailerraren lorpenetako bat. **Berrikuntzaren** espezifikotasuna argitu zen, *aldaketa*, *esperimentazioa* edo *praktika ona* bezalako antzeko terminoekin konparatuta.

“Berrikuntza” hitzaren (“innovación”) etimologia “innovare” da, eta honela defini daiteke: “Ezarritako zerbaitetan zerbait berria sartzea”. Ideia batekin hasten den prozesu bat da berrikuntza eta ideia horrek esperimentaziora eta, geroago, orokortzera eramaten gaitu. Argi eta garbi bereizi behar dira “berrikuntza” eta “aldaketa” nozioak, aldaketak ez baitu esan nahi elementu berri bat borondatez sartu behar denik derrigorrean. Bereizketa horren adibide bat hau da: klima *aldatzen* dela esaten dugu, baina ez *berritzen* dela. Elikatu, sustatu eta ebaluatzen bada, berrikuntzak, batzuetan, aldaketara eraman gaitzake.

Giza ekintzak bakarrik eragiten du berrikuntza. Giza garuna eta eskua behar dira elementu berri hori sartzeko, haztera animatzeko eta fruituak emateko. Sarritan gogor ainguratuta dago tradizioan eta iraganaren onura guztiak erabiltzen ditu, etorkizuna eraikitzeko. Horregatik, ez da *asmatzea*, guztiz berria den zerbait sortu edo deskubritzen dela adierazten baitu kontzeptu horrek.

² Bulgariako tailerrari buruz informazio gehiago hemen: <http://www.sici inspectorates.eu/Activities/Workshops/Innovation-Driving-forces-and-goals>

Ekonomiaren arloan, Schumpeter-ek 1942an eman zuen definizioak erreferentzia izaten jarraitzen du: “suntsipen sortzaile” gisa definitu zuen berrikuntza, eta horrek “konbinazio zahar bat suntsitzea eta berri bat egitea” esan nahi du.

Hezkuntza-sistemetan, ekonomia ez diren indar bultzatzaileek eragiten dute berrikuntza: giza instituzio guztiak berritzen diren arren, hezkuntza arlo espezifikoak dela esan dezakegu; ez da ezer saltzeko asmoz berritzen, irakasleen praktikak eta ikasleen esperientziak hobetzeko eta arrakasta izaten laguntzeko baizik. Ikasleen arrakasta da berrikuntzaren funtsezko helburua, baita haien ongizatea ere. Irakaskuntza-praktiketan eragina izatea du helburu berrikuntzak eta, ikuskaritza-zerbitzuek eman ditzaketen ikuskatzeari eta laguntzari esker, irakasleen ongizatea ere susta daiteke.

Gainera, sistema guztiaren bilakaeran, hezkuntza-sistemetan, gidari ere izan daiteke berrikuntza. Hori ikasketa-planak kudeatuz, ikuskaritza-praktikak aldatuz edo politiketan adostuko diren helburu berriak ezarriz egin daiteke.

I.2 Berrikuntzaren izaera eta helburuak ez dira berberak testuinguru guztietan.

Berrikuntza sustatzen duten indarrak kanpo indarrak eta barne indarrak izan daitezke:

- **Berrikuntzaren kanpo sustatzaileak** ondorengoak dira: gizartearen eskaerak, orientabide eta lehentasun politikoak, arduren panorama aldakorra, eskoletako bertako ingurune aldakorra eta irakasleen ongizateak planteatzen dituen erronkak. Hau argudia daiteke: eskolei, irakasleei eta eskoletako zuzendariei inposatzen zaie berrikuntza, egokitzeko premiaengatik eta egunero dituzten erronkei aurre egiteko beharagatik.
- **Indar handia duten barne faktore batzuek ere sustatzen dute berrikuntza:** errenditu behar izatea, ondo egin behar izatea, desberdintasunak markatu behar izatea. Giza izaeraren ezaugarriak dira eraginkorragoa izan nahi izatea, arrakasta izatea, egokitzea eta bizirik irautea. “Berrikuntza” hitzak konnotazio positibo handia duela hartu behar da kontuan: berritzailea izatea dohaintzat jotzen da.

Existitzen den sistema batean sartutako elementu berria da berrikuntza, eta haren izaera sortzen den testuinguruaren menpe dago. Horregatik, praktika berritzaile baten

definizioa guztiz desberdina da Bulgarian, Eskozian, Ingalaterran edo Herbehereetan, haien historiaren, antolaketaren eta premien arabera.

Aldaketa sistemikoa sustatzeko Europako beste toki batzuetako praktika berritzaileak aprobetxatzea: Bulgariako Hezkuntza Ikuskaritza Nazionalaren kasua.

Hezkuntzaren arloko lehentasun nazionalak praktikan jartzeko asmoz, 2018an Bulgariako Hezkuntza Ikuskaritza Nazionala (NIE) sortu zen eta era aktiboan ematen die erantzuna gizartearen eskaerei, hezkuntza-sistemaren aldaketari laguntzeko eta XXI. mendeko gizartearen premiak asetzeko. Bai hezkuntzaren kalitatea ebaluatzeko modu desberdinak aztertuko dituen ikuskarien kidego bat sortuz, bai hezkuntza-politiken eraginkortasuna neurtzeko tresnen bidez, zirrara eta aktibitate handiko garaiak dira hauek Bulgariako ikuskaritzako kidegoarentzat eta aldaketa handia dago, aurreko praktiken aldean. Hori aldaketa sistemikoaren adibide bat dela esateak beste toki batzuetan ikusitako praktika berritzaileak eskatzen ditu, egitura berri hori martxan jartzeko.

Bulgariako Hezkuntza Ministerioa eskolak bultzatzen ari da, funtsezko lau arlo dituen “berrikuntza-etiketa” sortzearen bidez: hezkuntza-prozesuaren antolaketa edota edukia, eskola kudeatzeko praktika berriak, irakasteko metodo berriak (talde-lana areagotzearen bidez batez ere) eta, azkenik, ikasketa-plan berriak. Bulgariako eskola berritzaile gehienek egin dute lehenengo hiru arloak konbinatzearen aldeko aukera.

Oraingoz, eskola horien praktika berritzaileak, seme-alaben hezkuntzari begira gurasoentzat oso interesgarriak direnak, partekatzeko era aztertzen ari da.

Hezkuntza-sistemetako maila guztietan berrikuntza sustatzea eta praktika hobek bultzatzea: Eskoziako adibidea.

Erregearen ikuskariak ikuskatze mota desberdinak gauzatzen dituzte **Eskozian** eta haien formatua eta helburuak desberdinak dira. Adierazitako helburuen artean hezkuntza-sistemako maila guztietan praktika hobek sustatzea dago. Nola jar daiteke hori praktikan errealitatean? Erregearen ikuskariak beren gain hartzen dute ebaluazioa eskolekin egiteko konpromisoa, irekitzearen eta gardentasunaren bidez eta aldez aurretik alde interesatuei jakinarazitako irizpideak erabiliz, konpromisoa. Horrek 1996tik egin izan den galdera bat du oinarri: “Zein punturaino da ona ... ?”.

Horrekin batera, “zer existitu da 1996tik aurrera?” galderak ikasleen esperientzia ere integratzen du. Halaber, autoebaluazioa sustatzen da.

Gainera, hau zehaztu da: PRAISE markoa (Purpose-Relationships-Awareness-Information gathering-Sharing Information-Enabling) (Helburua-harremanak-sentsibilizazioa-informazioa biltzea-informazio partekatzea- aktibazioa) praktika onenen funtsezko zutabea da eta, halaber, funtzio inportantea izan du “lorpen eskoziarraren erronkan”, lorpenak areagotzea eta esparru horretan pobreziari lotutako arrakala gutxitzea helburu dituena.

Beste batzuek ikasi ahal izateko moduko praktika eraginkorrak adierazten dituzte ikuskariek eta, horiek hobetzeko orientazioa eta aholkularitza eskaintzen dituzte. Horietara erraz iristeko moduko apunteak egiten dira, praktika eraginkor horiek erraz partekatzeko asmoz.

Gainera, sei “lankidetzak” (ofizialak ez diren eskualde mailako hezkuntza-organoen antzekoak direnak) sortzeak eskolen arteko lankidetzak eta elkartzak handiagoa sustatuko duela espero da.

Ikuskaritzak hezkuntzaren kalitatean arreta gehiago ipintzea, datuen analisisian baino: OFSTED.

Erresuma Batuan OFSTEDen kasua bilakaeraren kasu bat izan dela argudia liteke; hots, ez da iraultza izan, planifikatutako aldaketa gradualak izan da gehiago, berrikuntza esperimentalak baino. Eskolek lehen ikuskaritzaren arautze-ahalmenari “beldurra” izan diotela ikusi zuen OFSTEDek. Horrek nahi ez ziren ondorioak eragin ditu eta, egoera horretan, kontuak emateko sisteman fokua gehiegi jartzeak hezkuntzaren egiatzko oinarritik desbideratu ahal ditu eskolak. Ikusi denez, gazteek ikasten dutena sarritan bigarren mailakoa da, errendimenduari buruzko informazioa entregatzearekin alderatuta. Izan ere, azterketara bideratuta dagoen irakaskuntzak eta ikasketa-planen murrizpenek oso eragin negatibo handia dute gaitasun gutxiago dituzten eta gizarte-egoera ahulenerako ikasleen artean.

Analisi horrek ikuskaritzaren markoa sakon berritzera eraman zuen OFSTED, ikuskaritza-praktiken bilakaerari esker ikuskaritza irakaskuntzaren kalitatean gehiago zentratuko zirelakoan. Marko berri horrek hobetzeko motor bat izan nahi du, ikuskaritza era erregulatze adimentsu, arduratsu eta zentratu baten bidez, eta ikasleen ongizatea, erantzukizuna eta gardentasuna bezalako funtsezko baloreei emango zaie

arreta berezia. Ikuspegi estrategikoa berrikusi da eta argitalpen zientifikoen garrantzia azpimarratu da, alde interesatuen artean erantzukizun handiagoa sustatzeko.

Ikuskaritza-praktikak aldatzea, alde interesatuen premiak asetzeko.

Elkarrizketa profesionalaren garrantzia da SIClko kideek partekatzen duten kezka, elkarrizketa horrek Europa osoan era desberdinak har ditzakeen arren. Maltan, bisita bat egin baino astebete lehenago jakinarazten zaie irakasleei, eskolen eta ikuskarrien artean konfiantza gehiago sortzeko. Flandrian eta Herbehereetan duela gutxi aldatu dituzte beren sistemak eta elkarrizketa profesionala hobetzea dute helburu. Herbehereek zenbait arrazoi tarteko aldatu zuten beren eredua. Eskolen kalitateari begira, eskola-batzordeen erantzukizuna azpimarratu nahi dute. Anbizioa piztea alderdi inportantea da eredu berri horretan. Gainera, alde interesatuen parte-hartzea sustatu nahi da, baita elkarrizketa profesionala hobea izatea ere.

Gai hori Herbehereetan ikertu da. Flandrian lehenengo sistemaren atzeraelikadura falta kritikatu da. Ondorioz, zuzendarien eta irakasleen premiei hobeto erantzuteko prestakuntza jaso zuten ikuskariek. Erreforma horrek ondorio positiboa izan du. Izpiritu bera oinarri zuen erreforma bat sartu zen duela gutxi Frantzian: alde aurretik jakinarazten diren irizpide batzuen arabera ebaluatzen dira irakasleak, eta aholkularitza jasotzen dute bisita egin baino hilabete lehenagotik.

Zenbat eta komunikazio handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da irakasleen, eskolen eta ikuskarrien artean egongo den konfiantza, hori izan zen lortu zen kontsentsua. Herrialde batzuetan, txostenak partzialki publikatzen dira batzuetan. Beste herrialde batzuetan, txostenak ez dira Internet-en publikatzen, eta horrek haien gardentasunari buruzko zalantzak planteatzen ditu. Eskolek gero eta autonomia handiagoa izatearen gaiak etengabeko ebaluazio eta ikuskatze baten premia planteatzen du (gure bisitak definitzeko erabiltzen dugun terminoa zein den alde batera utzita).

Gertatu dena gehiago da bilakaera, berrikuntza baino; hots, kontrol-funtzio batetik laguntza- eta aholkularitza-funtzio batera pasa da. Irtenbideak aurkitzen laguntzen duten bitartekariak dira ikuskariak gero eta gehiago. Dena den, horrek nortasun bikoitz baten antzeko arazoa sor dezake; hots, ikuskarrien kidegoak duen funtzioaz galde daiteke, aholkularitza- edo kontrol-funtzioa den, alegia.

II Berrikuntza sustatzeko estrategiak eta gainditu beharreko oztopoak.³

II.1 Sistema osoaren ikuspegi bat izatea eta alde interesatuekiko sorkidetza.

Madeirako Eskualde Ikuskaritzak hartu zuen tailerraren tituluari “sorkidetza” eta “ikuspegi sistemikoa” esamoldeak gehitzeko ekimena; izan ere, bi esamolde horiek haren estrategia oinarri diren bi funtsezko irizpideak argi zehazten dituzte.

Eskualde mailako Hezkuntza Ikuskaritzak hiru urte bete zituen 2019an zuzenean Madeirako Eskualde mailako Hezkuntza idazkaritzaren menpe dagoen departamendu gisa lan egiten. Haren funtzioa haur eta gazteek kalitateko hezkuntza jasoko dutela bermatzea da, guztientzako hezkuntza, giza eskubideak eta inklusioa eskaintzeko ikuspegitik.

Aldaketak arrakasta izateko, eskala handian aplikatu behar da berrikuntza eta eragile guztiek izan behar dute inplikazioa. Funtsezko neurri batzuk hartu behar direla zehazten du Madeirak: planifikazioaren behaketa eta analisia, ikasleek ikasteko prozesuaren emaitzak aplikatu eta ebaluatzea eta hobetzeko neurriak hartzea. Eskolak egiten dituen diagnostikoaren, planifikazioaren eta inplementazioaren emaitza dira neurri horiek, eta aukera-berdintasuna eta estatuak ezarritako hezkuntza-politikak aplikatzeko prozesuak hobeto ulertzea bermatu behar dituzte. Helburua da prozesu horietan planifikatzen diren praktika onenak eskola-emaitzetarako hartzea. Estrategiak Deming zikloa du oinarri: planifikatzea – gauzatzea – egiaztatzea – aritzea.

Ikuspegi hau, batez ere, bi proiektu sistemikotan gauzatzen da:

Ikaskuntzaren garapena, ikaslearen eskola-planifikazioa, aplikazioa eta ikaskuntzaren ebaluazioa behatu eta analizatzea helburu dituena; ikasturtearen antolaketak duela gutxi izan duen aldaketaren ebaluazioa, eskola denbora osoz oinarritzko hezkuntzan inplementatzen ari den erari buruzko informazioa biltzea helburu duena.

³ Funchaleko tailerrari buruzko informazio gehiago: <http://www.sici inspectorates.eu/Activities/Workshops/Strategies-and-obstacles-for-innovation.-system-wi>

Hitz batean, gomendio hau ematen die ikuskariei Madeirak: “Utz iezaiozue zerrendak egiaztatzeari! Alde interesatu guztiak inplika itzazue eta ez ezazue giza alderdia ahaztu!”.

Alde interesatu desberdinak prozesuaren parte sentitzearen abantailak soberan aitortuak izan dira, probak elkarrekin eginez, esate baterako (**Eskozia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Italia**). **Eskozian** prozesu horrek familiak eta, batzuetan, ikasleak ere hartzen ditu. Gero eta gehiago gertatzen da ikuskariek **ESKOLAREKIN** eta zuzendaritza-taldeekin, eta ez haien kontra, ikuskaritza egitea. Eskolei laguntzearen garrantzia ere elementu inportantea da estrategia arrakastatsua izateko. Egiten diren ikuskatze askotan, **Madeirakoetan eta Euskal Autonomia Erkidegoetan** batez ere, epe luzerako ikuspegi bat izan behar da, berrikuntzak sustraitzeko denbora izateko. Autoebaluaziorako bidean eskolei laguntzean, **INVALSIK (Italia)** hezkuntzako profesionalen beste jarrera batzuk garatzeko aukera ematen die helburuak identifikatzeko eta aurrerapena ebaluatzeko lagungarri izango dituztenak. Ikuskariek egiazko bultzada bat eman dezakete; berrikuntza gerta daitekeen marko argi bat ematen dute. Ebaluazioaren bidez atzeraelikadura positibo bat eman ahal diete eskolei. Ikuskariek lorpenak nabarmentzeko eta geroago aurrera eramateko arloak proposatzeko funtzioa dute, eskoletan praktikak behatzeko kanpoko behatzaileak diren aldetik; izan ere, eskolak eta haren eragileek arlo horiek har ditzakete, ardura handiagoa erakutsiz edo prestakuntza espezifikoko programak garatuz eskoletan.

Ikuskariek beren behaketaren markoan berrikuntza **sartzeko duten era** arreta jartzeko puntu bat da. Ikuskari batzuk ikuspegi bakar bat saihesten saiatzen dira (**Euskal Autonomia Erkidegoa**) eta denboraldi luzeago batean laguntza eman eta ikuskatzea egiten dute eskoletan; hori praktika berritzailea da haientzat. **Eskozian**, profesionalak ez direnek (gurasoek eta ikasleek) behatzeko prozesuan parte hartzeko aukera dute. Hezkuntza-gaietako unibertsitate-adituengana jotzen du **Italiak**, eskolak bisitatzen dituzten hiruna pertsonako taldeetako kideak izan daitezten.

Gelako praktikak behatzeak zeharkako ikuspegi bat eskaintzen du, eta ikuspegi hori lagungarri da berrikuntzaren arloan dauden oztopoak gainditzeko orduan. Hala ere, gelan behaketa egitea ez da ohiko praktika zenbait eskualdetan, ikuskari batzuk

beren lan-eremuan sartzen saiatzen ari diren arren. Zabalagoak eta zeharkakoagoak diren gai batzuek, antza denez, ematen dute behaketa hori sartzeko aukera baina, hala ere, irakasteko praktika gela barruan behatzea ez da oraindik gehiegi egiten den praktika, Frantzia eta Portugal kontinentala bezalako herrialde gutxi batzuetan izan ezik.

Ikuspegi zuzenago bat badago, hots, hezkuntzako profesionalak gaitzea eta behar dituzten tresnak ematea, baita berrikuntzak alde interesatu guztiei dakarkiena azaltzea ere, haien onurez jabe daitezten. Praktika onak partekatzeak eta praktika on horiek sistema guztiarentzako praktika bihurtzeak abantailak besterik ez dituzte ematen. Inportantea da eskolekin aldizka hitz egitea (**Madeira, Euskal Autonomia Erkidegoa**) eta horrek berrikuntza susta dezake.

II.2 Berrikuntza ikuskatzea eta ebaluazioaren izaera aldatzea.

Ezagutzan oinarritutako ikasleen ebaluazio batetik ikasleek gizarte modernoan beren tokian errazago izateko gaitasunetara pasatzea azken urteetan hezkuntza-sistemetan izan den bilakaera handi bat izan da, argi eta garbi. Madeiran, parte-hartzaile askok (**Euskal Autonomia Erkidegoa, Eskozia, Madeira, Portugal kontinentala, Italia eta Luxenburgo**) gizartearen premiak asetzearen garrantzia nabarmendu zuten, ikasleen emaitzak hobetzeko eta haien ezagutza mailak areagotzeko. Ikasleen ongizatea sustatzea (**Euskal Autonomia Erkidegoa, Madeira**) eta ikaskuntza-esperientzia positiboagoa izatea, eskolaz kanpoko jarduerak eskainiz (**Madeira, Eskozia**) edo ikasleen artean komunikazio handiagoa eta talde-lana sustatzeko gelen antolaketa birplanteatuz, merezi zuten helburuak zirela ere ikusi zen. Lorpenen arloan pobrezari lotutako arrakala gutxitzea premiazko beharra da eta **herrialde askotan** planteatzen da. **Eskozian**, espektro politiko guztian eta hezkuntza-erkidegoan ematen den laguntza orokorrak gizarte-egoera ahuleko ikasleei ahal duten guztia egiteko aukera emango dieten baldintzak lortzea du helburu.

Garrantzi handiko aldaketa horiei laguntzeak berritzeko gaitasun handia izatea eskatzen du eskolen, irakasleen eta ikuskarien aldetik; izan ere, ikuskariak dute aldaketa horiek gertatzeko laguntza emateko ardura. Haien ohiko kontrol-funtzioak

jarraitzen du eta beharrezkoa da, baina hezkuntza-sistemek dituzten erronkei aurre egiten ere lagundu behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskarien kidegoa kalitateko hezkuntza-sistema bat lortzeko prozesua sustatzen saiatzen da, jarraipenaren, ebaluazioaren eta eskolei eta sistemaren beste elementu batzuei eman beharreko aholkularitzaren bidez, hobetzen laguntze aldera. INVALSIk, Irakaskuntza eta Prestakuntza Ebaluatzeko Institutu Nazionalak, **Italian** behar den errotikako aldaketaren aldeko apustua egin zuen, gaur egun aplikatzen den ikuspegi deszentralizatua eta beheranzko joera duena aboratzeko eta eskoletako autoebaluazioaren konpetentziak hobetzeko asmoz; izan ere, landu beharko dituzten ardatz estrategikoak argi identifikatu ahal izango dituzte eskolek eta ikasleen eta gizartearen premiei erantzun hobea emango diete. **Portugal kontinentaleko** ikuskariak ikuskatzeari arreta handiago eskaintzeari eman zioten lehentasuna azken urteetan; hots, hezkuntza-jarduera aldizka behatzea eta laguntzea, hezkuntza-politikaren neurriak aplikatzeko modua hobeto ezagutzeko, ikasketa-planen kudeaketari dagokionez, batez ere.

Begi-bistakoa denez, ebaluazioa egiten den erak oso eragin inportantea izan dezake berritzeko eta arriskuak bereganatzeko irakasleen eta eskolen gaitasunean. Berrikuntzaren eta ebaluazioaren arteko loturari buruzko Janet Looney-ren lanak azpimarratzen duenez, “errendimendu handiko azterketetan oinarritutako ebaluazioa beharrezkoa den arren, sarritan ‘azterketarako irakatsi edo ikasteko’ pizgarri bat da. Adibidez, arriskuak bereganatzeko ikasleen, irakasleen eta gurasoen gaitasuna muga daiteke”. Arazoa larriago bihur daiteke, kontuak emateko eta pizgarrien sistema batek azterketa eta proba horien emaitzak irakasle eta eskolak ebaluatzeko erabiltzen baditu. Zer egin beharko litzateke, hezkuntza-sistemak ebaluatzeko erabiltzen diren sistemak berrikuntzari dagozkion arriskuak bereganatzeko oztopo izan ez daitezen eta ikasleen artean berrikuntzaren aldeko jarrerak susta ditzaten?”⁴

Azterketak ebaluazioa eta berrikuntza konbinatzeko hiru modu nagusi aldarrikatzen ditu:

- Errendimendua sustatzeko neurri sorta zabala garatzea, bai ikasleentzat, bai eskolentzat.
- Arau eta ebaluazioen lerrokatzea birpentsatzea.
- Ebaluazioek irakasteko eta ikasteko prozesuan duten eragina neurtzea.

⁴ Looney, J. (2009), "Assessment and innovation in Education", OECD Education Working Papers, Nº 24, OCDE Publishing, Paris, <https://doi.org/10.1787/222814543073>

II.3 Gainditu beharreko oztopoak.

Eskoletan berrikuntzari laguntza emateak arrisku eta erronka batzuk dakartza kanpo ebaluatzaileentzat, ikuskaritzen oinarrizko funtzio historikoarekiko (hau da, arautzea) kontraesankorra dela eman baitezake koherentzia eta egonkortasuna bultzatzea, sormena eta malgutasuna sustatu beharrean.

Eskolen ikuspuntutik, baliabide logistiko, teknologiko eta finantzarioak balizko oztopo gisa ikusiak izan ziren. Gainera, berrikuntza batzuk anbizio handikoegiak direla ikus daiteke. Berrikuntzak epe motzera lor dezakeelako itxaropenak kudeatzeak **(Eskozia)** kontrako ondorioa izan lezake hezkuntza-politika zehatz baten epe luzerako helburuei begira.

Hezkuntza-sistemetan gertatzen den berrikuntzak interesa duten aldeak haien praktikak kuestionatzera eramaten ditu. Hala ere, eskola-ingurunean elkarren artean lehiatzen diren ikuspegiak existitzen badira, hori ere oztopoa izan daiteke. Batzuetan, ez da jokoan dagoena ulertzen, helburuak era eraginkorren ez jakinarazteagatik edo elkarrizketa profesionala ez egoteagatik, eta ulermen falta hori berrikuntzarako galga izan daiteke.

Irakasleen motibazioa praktika berritzaileak hedatzeko galga ere izan daiteke. Gainera, gela barruko praktikan berrikuntza integrazteko irakasleen prestakuntza faltak **(Luxenburgo)** prozesua moteldu dezake, baita itopuntuan jarri ere.

Herrialde batzuetan, irakasteko praktikan aldaketak egitearen kontrako jarrera batzuk ikusi dira ikasle eta gurasoen aldetik eta horrek ikasleak eta familiak hezkuntza-sisteman berriro inplikatzeko zer egin behar den planteatzen du. Praktika berritzaileak sustatzeko beheranzko joerek muga larriak izan direla erakutsi da **(Italia, Luxenburgo)**, eta kalte gehiago ekar ditzakete, onurak baino.

Aldaketarekiko beldurra behin eta berriro errepikatzen da. Izan ere, aldaketek nola eramango dituzten (*terra incognita*) galdetzen diete hezkuntzako profesionalak beren buruei. Beldur horrek nahi ez ziren ondorio batzuk izan ditu **Luxenburgon** paradigma-aldaketan espero ziren emaitzetan. Behar den mailan ez egotearen beldurra izan daiteke, eta autoebaluazioan esperientziarik ez izatea **(Italia)** adibide on bat izan daiteke.

Oztopo horien izaera eta aldaketari lotuta sor daitezkeen arriskuak identifikatzea funtsezko baldintzak dira edozein proiektu berritzailearen ikuskatzeak arrakasta izan

dezan. Ikuskaritzako kidego askok (**Eskozia, Luxenburgo, Madeira**) egiteko argi bat ezartzea eta borondate politikoaren beharra azpimarratu zituzten; areago, berrikuntza beti ona ote den ere planteatzera iritsi zen (**Madeira, Euskal Autonomia Erkidegoa**) eta horrek, jakina, berrikuntza hori ebaluatzearen gaira eramaten gaitu.

III. Ikuskaritzan praktika berritzaileak sartzea, beste herrialde batzuen esperientziak: praktika, erronkak, ikaskuntza eta ondorioak⁵



An Roinn Oideachais
agus Scileanna
Department of
Education and Skills

Lankidetzan egin beharreko praktika profesionalari laguntzeko ikuskaritza garatzen saiatzen ari da Irlanda, ikuskaritzaren markoetan lankidetzaren profesionala baloratuz, talde-lana sustatuko duen lidergoa bultzatuz, ikuskaritzaren metodoak lankidetzaren bidez eraikiz, datuetan konfiantza gehiegi izan beharrean behaketaren praktikan zentratuz, ikuskaritzak gehitu dezakeen balorea ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Irakasleen praktika indibidualaren eta kolektiboaren kalitatea eta eskola-lidergoak hori ahalbidetzeko modua dira ikasleen ikaskuntza ziurtatzeko faktore indartsuenak: eskolaren autoebaluazioak eta ikuskaritzak irakasleen lankidetzaren eta ikasleen eskolaren autoebaluazioan duten parte-hartzea baloratzen dituzte.

Ikuskaritzak kontuak ematea eta eskolen hobekuntza lortu nahi ditu.

Gelan egin beharreko behaketa eta profesionalekin izan beharreko elkarriketa azpimarratzen dira, eta eskola baten eraginkortasuna baloratzeko proba eta azterketen emaitzei gehiegizko garrantzia ez ematen saiatzen da.

Ikuskaritzaren txostenek ez dituzte errendimendu akademikoari buruzko datu estatistikoak sartzen, datu estatistiko horiek sailkapen-taulak egitea eragin lezakete; hizkuntza ebaluatzaile mota asko erabiltzen dituzte eta eskolari buruzko iritzi global bakarra ez ematen saiatzen dira.

Ikaskuntza berritzailearen inguruneak nolakoak izan litezkeen eta ikuskariek horiek errealitate bihurtzeko era definitzen laguntzeko inplementatu zen Irlandako tailerra.

⁵ Informazio gehiago: <http://www.sici-inspectorates.eu/Activities/Workshops/Embedding-Innovative-Inspection-Practice>

III.1 Ikaskuntza berritzaileen eta iraunkorren inguruneak sortzea.

Ikaskuntza XXI. mendean

➤ Ikaskuntza ezagutza, trebetasunak, jarrerak eta baloreak den aldetik.	Zer da sormena? Diziplina-ezagutza Diziplina arteko ezagutza Ezagutza praktikoa Ezagutza
➤ "Hezkuntzaren edukiaren" sorkideak dira ikasleak.	Trebetasunak Trebakuntza kognitiboak eta metakognitiboak Trebakuntza sozial eta emozionalak Trebetasun fisikoak eta praktikokoak Gaitasunak Jarduera
➤ Ikaskuntza-antolakuntzen dinamika.	Jarrerak eta baloreak
➤ Non ikasten da?	OCDE Hezkuntza Markoa 2030

XXI. mendeko eta etorkizuneko ikaskuntzak ingurune birdefinitu bat eskatzen du eta, ingurune birdefinitu horretan, eskolek eta hezkuntza-sistemek honako funtzioak bete beharko dituzte:

- Ikaskuntza funtsezkoa izatea eragitea eta ikasleen konpromisoa sustatzea.
- Ikasleen motibazioekin sintonizatzea eta emozioen garrantzia ulertzea.
- Desberdintasun indibidualekiko sentsibilitate handia izatea, baita desberdintasun horiek ezagutu aurretik ere.
- Lan karga handiegirik eman gabe ikasleei gehiago exijitzea.
- Helburuekin bat datozen ebaluazioak erabiltzea, atzeraelikadura formatiboaren garrantzia azpimarratuz.
- Eskoletan eta eskoletatik at jardueren eta arloen bidez konexio horizontala sustatzea.

Ingurune horietan, benetan eraginkorra den ikaskuntza jarduera sozial baten gisa ulertzen da, eta irakaskuntzak bere ohiko isolamendua hausten du, profesionalki garatzeko aukera baliotsutzat jotzen diren elkarrizketa profesional onuragarriak izateko.

III.2 Ikuskaritzako kidegoek, dute ingurune berritzaileak sustatzeko aukera bidea beren metodoekin erakutsiz.

Ohituta dauden eredu bat birproduzitzen dute normalean irakasleek, eta ikuskaritzek berrikuntza eragiteko laguntza eman dezakete, beste eredu bat erakutsiz eta berrikuntza beraiek eginez.

Europa osoan **ikuskaritza-eredu desberdinak** eramaten ari dira aurrera. Suediak ikuspegi tematikoa nabarmendu zuen. Galesek bere ereduaz hitz egin zuen: ikuskatze-prozesuan kideek ere parte hartzen dute, eta askoz garapen profesional handiagoa sortzeko aukera ematen du horrek. Halaber, ikasleen ahotsa kontuan hartzearen garrantzia ere azpimarratu zen. Sarritan, irakasleak alde batera utzita, elkarrizketak egiten zaizkie ikasleei (irakasteko praktikei buruzkoak ez ezik, ikuskaritzaren funtzioaz ere izaten dira elkarrizketak). Irlandan, ikuskariek ikasleen eztabaida-taldeetan hartzen dute parte, eskola guztiaren ebaluazioetan; eskolaren ebaluazio globalean ikasleen galdetegiak ere hedatzen dira, irakasle eta familien galdetegiarekin batera.

Parte-hartzaile askok **eskolen** autoebaluazioa eta **ahalduntzea** nabarmendu zituzten, horretarako behar diren trebetasunak izan ditzaten eta hobekuntzaren ardatzak identifikatzeko asmoz. Datuetan bakarrik oinarritzen zen ikuspegia jarri zuen Ingalaterrak kolokan, ikuskari askok lanak bisita batean edo egindako behaketan bidez bildutako probetan oinarritu behar direla azpimarratzen baitute.

Tailer horretan **komunikazioaren eta konfiantzazko ingurune bat sortzearen garrantzia** azpimarratu zen. Elkarteko kide batzuek, Suediak eta Portugal kontinentalak, esate baterako, familien eta eztabaida-taldeen iritziak eskatzen dituztela adierazi zuten. "Ezagutzaren bitartekari" gisa duten funtzioaz hitz egin zuen Islandiako delegazioak; izan ere, sistemaren alde interesatu guztiekin informazioa eta ideiak partekatzean datza funtzio hori, hots, **ebaluatzeko prozesuaren jabetza** alde interesatu guztiekin partekatze prozesua.

Ikuskaritzak egiteko eredu tradizioaletik lankidetzan oinarritutako eredu batera nola pasatu zen adierazteko zenbait adibide eman zituen Irlandako ikuskaritzak; hots, irakasleengan zentratutako ikuspegi bat alde batera utzi da eta aurrerapausoak eman dira ikaskuntza-esperientziaren behaketan eta ebaluazioan oinarritutako prozesu batean.

Ondorengo bi diagramek ikuskaritzaren eredu tradizionalak izan duen bilakaera ilustratzen dute; izan ere, alde interesatuei egindako kontsulta, haien ekarpenak eta txostenetako atzeraelikadura biltzen dituzte.

Aurkezten den kasuan haurren babesa aurrera eramateko prozesuaren gainean egin diren ikuskaritzen eredia deskribatzen da.


Ikuskaritza tradizionalaren garapena

Ikuskariek lehentasuna identifikatzen dute	Ikuskariek proposamenak egiten dituzte	Proposamenak publikatzen dituzte eta kontsultak egiten dituzte	Saioa eskoletan	Eredua aldatzen da	Eskola-sisteman inplementatzen da
--	--	--	-----------------	--------------------	-----------------------------------

Haurrak babestu eta zaintzeko ikuskaritzak garatzea.

Ikuskariek lehentasuna identifikatzen dute	LAGUNTZAILEEKIN KONTSULTATZEN DUTE	ESKOLETAN ENTZUN ETA IKERTZEKO FASEA	Proposamenen lehen zirriborroak egiten dituzte ikuskariek	LAGUNTZAILEEKIN KONTSULTATZEN DUTE	Saioa eskoletan	EREDUA BIRDISEINATZEN DA	SAIOA ESKOLETAN	Aldatzen da eta bukatzen du	Eskola-sisteman inplementatzen da
--	------------------------------------	--------------------------------------	---	------------------------------------	-----------------	--------------------------	-----------------	-----------------------------	-----------------------------------

Haurren babesa eta zaintza eta ikuskaritza



Irakaspenen ondorioak hauek dira: eskolen ezagutza ebaluazio-ikuspegi onak diseinatzeko lagungarri izan daiteke; eskoletara galdera partekatuekin, eta ez irtenbideekin, hurbiltzeak antsietatea eta berorren arriskuak gutxitzen ditu; lankidetzak sakonean oinarritutako ikuspegi bat hartzeak ikuskariak ebaluatzen ari direna eta haien lana nola ikusten den gehiago ulertzea eragiten du.

III.3 Berrikuntza sartzeak maila desberdinetako ikuspegia eskatzen du.

- Ebaluatzea, benetan berritzailea den aldaketa al da? Zein elementu berri sartzen du? Zein premiari ematen dio erantzuna? Helburu eta plan zabalago baten zatia edo ekimen isolatua da? Haren eragina kuantitatiboki edo kualitatiboki neur al daiteke? Irekiera-hitzaldian, Claire Shewbridgek, OCDEko Hezkuntza, Hezkuntza Zuzendaritza eta Gaitasunen Zuzendaritzako Gobernantza Estrategikoko proiektuaren buruak, erakutsi zuen ebaluazioaren aldeko kultura- barne eta kanpo mailakoa- inportantea dela ikuskaritzaren praktiketan berrikuntza sustatzeko orduan, aldatzen ari den hezkuntza-panorama hezkuntza-sistemako maila guztietan aldaketa eta hobekuntza lortzeko.
- Praktika partekatzea: lankidetzaren garrantzia azpimarratu da eta arrakasta lortzeko benetan bete beharreko baldintza da. Frantzia, Hezkuntza Ministerioak berrikuntzaren egun bat antolatzen du eta herrialde guztiko eskolak eta irakasleak beren proiektua aurkezteko biltzen dira egun horretan. Antzeko beste ekimen asko egiten dira, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten den berrikuntzaren eguna esate baterako. Ikasitako esperientziak eta ikasgaiak partekatzea, jakina, prozesuaren parte da, baina horrek ez du esan nahi berrikuntza berbera testuinguru desberdinetan derrigorrean gertatuko denik. Testuinguru konkretu batean sustraituta egotea esperimendu zehatz bat beste baldintza batzuetan egitea baino inportanteagoa izan daiteke.
- Sistema auzitan jartzea, berrikuntzak egin daitezkeen eta zein baldintzatan zehazteko.
- Komunitatearen, oro har, eta klase politikoaren laguntza bilatzea: erreformak eta lehentasunak sortu eta aurrera eramateko prozesuan laguntza ematen

duten funtzionarioak dira ikuskariak; posizio egokian daude, profesionalen eta administratzaileen artean bitartekari izateko eta aldaketa iraunkor eta onargarri baten aldeko argudio bat eraikitzeko.

- Hezkuntza Ministerioko beste organismo batzuekin lan egitea eta hezkuntza-eremutik kanpoko beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea.
- Ikerketaren eta praktikaren arteko loturak aurrera eramatea gelan, praktika berritzaileak ebaluatzeko eta ikasleek ikasteko prozesuan sormena eta berrikuntza sustatzeko. Emaizak praktikan jartzeko, hazkundera eten ez duen OCDEren ikerketa-taldean, akademikoengan eta hartutako ekimen batzuetan izan ditzakegu inspirazioa.

Ondorioa

Askoz zabalagoa den gobernu-sistema baten atala dira ikuskariak eta, beste eragile batzuekin batera, politikak egin eta aplikatzeko prozesuan eragina dutenak; elkarreraginean ari dira sistema horretan. Oso toki espezifiko eta pribilegiatua dute antolaketa konplexu horretan eta horrek ematen die politiken arduradunekin eta profesionalekin hitz egiteko aukera. Halaber, haien esperientziak, profesionaltasunak eta irizpide independenteak izateak ematen dien zilegitasuna ere badute ikuskariak.

Posizio bakar horri esker, alde interesatu guztien arrakasta, ikasleena bereziki, ziurtatzeko ekimenak hasi, ebaluatu eta txertatzeko indar sustatzaile irmoa izan daitezke ikuskariak.

Funtzio hori ahalik eta era eraginkorrean betetzeko, hainbat mailatan jardun behar dute.

- Beste alde interesatu batzuekin elkarreraginean aritzea, ikuskaritzaren funtzioa hobeto ulertzeko eta politiketan eragiteko, haien behaketen eta ezagutza espezializatuen ondorioekin bat etortzeko.
- Eskola-liderrekiko eta irakasleekiko konfiantza, elkarrizketa eta konpromisoa sustatzea; izan ere, hau jakin behar dugu: berrikuntza ezin da behartu; maila guztietan inplikaturik dagoen bakoitzak onartu eta bere gain hartu behar du.
- Funtsezko eginkizun hori betetzeko eta haien egitekoa aurrera eramateko behar diren trebetasunak garatzea.